



Bilbao, Kristina, Ane Odria, Ane Berro, Josu Landa  
& Beatriz Fernández (ed.). 2022. Euskara Bariazioan / Basque in Variation (BiV) (3. arg.).

UPV/EHUko Argitalpen Zerbitzua.

[Interneten eskuragarri <https://basqueandbeyond.ehu.eus/biv/?h=eu>].

ISBN: 978-84-1319-456-1.

data: 2024-11-05

## viii. Modua

### viii.1. Baldintza hipotetikoetako apodosian \* *edin/\*ezan* (v *izan/\*edun*)

Egilea: Cecilia Fernández

Nola aipatu: Fernández, Cecilia. (2022). Baldintza hipotetikoetako apodosian *\*edin/\*ezan* (v *izan/\*edun*). In Bilbao, Kristina, Ane Odria, Ane Berro, Josu Landa & Beatriz Fernández (eds.), *Euskara Bariazioan / Basque in Variation (BiV)* (3. arg.). UPV/EHUko Argitalpen Zerbitzua. [Interneten eskuragarri: <https://basqueandbeyond.ehu.eus/biv/?o=chapters&id=8&e=54&h=eu>]. ISBN: 978-84-1319-456-1.

## Gako-hitzak

aspektua, baldintza, modua, prospektiboa, subjuntiboa

## Deskribapena

Euskara estandarrean, eta hainbat hizkeratan, baldintza hipotetikoa adierazterakoan, baldintzazko perpausaren ondoriozko atalean, hots, apodosian, aditz nagusia aspektu prospektiboarekin adierazten da (*-ko* edo *-ren* morfemen bitartez) eta *izan/\*edun* erroko aditz laguntzailea erabiltzen da. Hala, (1) adibidean ikusten denez, aditz nagusia aspektu prospektiboa markatzeko *-ko* morfemarekin ageri da (*etorriko*), eta aditz laguntzaileak (*ginateke*), *izan* erroko *alegiazko* adizki gisa itxuratzen da da, hau da, baldintza hipotetikorako adizki gisa:

(1)	Eguraldi	ona	egingo	balu,
	eguraldi	ona.ABS	egin. PROS	BA.MOD.( 3ABS). 3ERG
	<b>etorriko</b>	<b>ginateke</b>		
	etorri.PROS	1PL.ABS.izan. PST.MOD		

Ekialdeko zenbait hizkeratan, ordea, testuinguru honetarako ahalerako formak erabiltzen dira, alegia, [aditzoina + \**edin*/\**ezan*+ -ke] egitura erabiltzen da. (2) adibidean ikusten denez, *etorri* aditz nagusia oraingoan ez da aspektu prospektiboko markekin ageri, eta horren ordez aditzoina (*etor*) aurkitzen dugu. Bestalde, aditz laguntzaileari dagokionez, *izan* erroko adizkiaren ordez, \**edin* errokoa dugu (*gintezke*):

(2)	Eguraldi	ona	egiten	balu,
	eguraldi	ona.ABS	egin. IPFV	BA.MOD.( 3ABS).3ERG
	<b>etor</b>	<b>gintezke</b>		
	etor	1PL.ABS.edin. PST.MOD		

## Datu-basearen emaitzak

Gure datu-basean, ipar-ekialdeari dagozkion hizkeretan aurkitzen dugu lekukotuta aldaera hau, hots, nafar-lapurterari eta zuberotarrari dagozkion hizkeretan. Hala, (2) bezalako aldaeraren erabileraren berri ematen dute Ziburuko, Oragarreko eta Urdiñarbeko erantzunek; ez, ordea, Nafarroako hizkeretako lekukotasunek, ezta ere, handik mendebalderagokoek (erdialdeko eta mendebaleko hizkeretakoek) ere.

## Eztabaida teorikoa

EGLU II-k (Euskaltzaindia 1987 [1997]: 380), bi aldaera hauen berri ematen du, gaurko ekialdeko euskalkiei dagokiela zehaztuz. De Rijken (2008: 424, 646) gramatikan ere egitura hau jasotzen da, Iparraldeko hizkerari egotziz. De Rijkek azaltzen du hizkera hauetan *ahalerazko baldintza* (zehatzago esanda, ahaleraren forma hipotetikoa) ere indikatiboko baldintza bezala interpretatu daitekeela. Aldiz, ahaleraren semantika adierazi nahi denean *ahal* modalaren bitartez egiten da (*erosten ahal nuke* bezalako egituraren bidez). Egitura honetaz, ikus datu-base honetako 68. kapitulua.

# Aipamenak

de Rijk, Rudolf P.G.. 2008. *Standard Basque: A progressive grammar*. Cambridge (Mass.): MIT Press.

Euskaltzaindia. 1987. *Euskal Gramatika: Lehen Urratsak II*. Iruñea: Institución Príncipe de Viana eta Euskaltzaindia. [Reprinted in Euskaltzaindia. 1997]

---

## viii.2. Menturazko etorkizuna adierazten duen -ke- marka: *dukezu*

Egilea: Cecilia Fernández

Nola aipatu: Fernández, Cecilia. (2022). Menturazko etorkizuna adierazten duen *-ke-* marka: *dukezu*. In Bilbao, Kristina, Ane Odria, Ane Berro, Josu Landa & Beatriz Fernández (eds.), *Euskara Bariazioan / Basque in Variation (BiV)* (3. arg.). UPV/EHUko Argitalpen Zerbitzua. [Interneten eskuragarri: <https://basqueandbeyond.ehu.eus/biv/?o=chapters&id=8&e=55&h=eu>]. ISBN: 978-84-1319-456-1.

## Gako-hitzak

-KO postposizioa, modua, prospektiboa

## Deskribapena

Hainbat hizkeratan, menturazko etorkizuna —hau da, ziurtasun maila txikiago batekin adierazi nahi den geroaldiko forma— adierazteko, aspektu prospektiboko morfologia erabiltzen da, eta beraz, *-ko* edo *-ren* morfemekin markatzen da aditz nagusia, (1) adibidean bezala:

(1)	Gure	anaia	<b>ezagutuko</b>	duzu
	gure	anaia.ABS	ezagut.PROS	3ABS.edun.2SG. ERG

Alabaina, ekialdeko hizkeretan, bada beste estrategia bat menturazko etorkizuna adierazteko. Kasu honetan, *izan* edo *\*edun* erroko aditz laguntzailea markatzen da, *-ke* morfema gaineratuz. Bestalde, aditz nagusiak aspektu burutugabeko morfologia agertzen du (*-t(z)en* morfema), (2) adibidean ikusten den moduan:

(2)	Gure	anaia	ezagutzen	dukezu
-----	------	-------	-----------	--------

## Datu-basearen emaitzak

Datu-base honetako laginean, estrategia honen erabilera ipar-ekialdeko hizkeretan lekukotu da, hau da, nafar-lapurtarrari eta zuberotarrari dagozkion hizkeretan: Ziburu, Oragarre eta Urdiñarbe. Ez nafar hizkeretan, ez erdialde edo mendebalekoetan ez da egitura hau jasotzen.

## Eztabaida teorikoa

EGLU IIn (Euskaltzaindia 1987 [1997]: 412-413) adierazten denez, *-ke* morfema aditzaren modua adierazteko erabiltzen den marka morfologikoa da. Marka honek hainbat balio har ditzake eta horietako bat menturazkoa da, baina, EGLUK berak ohartarazten duenez, balio hau ekialdeko euskalkietan baino ez dugu aurkitzen. Honen lekuan, mendebaleko hizkerek aspektu prospektiboaren morfologia erabiltzen dute. Bestalde, beste hizkera guztietan, *-ke* morfemak har ditzakeen moduzko balioak ahalerazkoa eta baldintzaren protasi irrealisarena dira.

De Rijk (2008: 805) ere, Euskaltzaindiari jarraituz, (2) adibidean jasotako erabileraren berri ematen du eta *geroaldi burutu sintetikokoak* deitzen die forma hauei (jatorrizkoan “*synthetic*” *perfect future tense*, kakotxak egilearenak dira).

## Aipamenak

de Rijk, Rudolf P.G.. 2008. *Standard Basque: A progressive grammar*. Cambridge (Mass.): MIT Press.

Euskaltzaindia. 1987. *Euskal Gramatika: Lehen Urratsak II*. Iruñea: Institución Príncipe de Viana eta Euskaltzaindia. [Reprinted in Euskaltzaindia. 1997]

---

## viii.3. Ahalera *ahal* modalaren bidez: *apurtzen ahal da* (v *apur daiteke*)

Egilea: Cecilia Fernández

Nola aipatu: Fernández, Cecilia. (2022). Ahalera *ahal* modalaren bidez: *apurtzen ahal da* (v *apur daiteke*). In Bilbao, Kristina, Ane Odria, Ane Berro, Josu Landa & Beatriz Fernández (eds.), *Euskara Bariazioan / Basque in Variation (BiV)* (3. arg.). UPV/EHUko Argitalpen Zerbitzua. [Interneten eskuragarri: <https://basqueandbeyond.ehu.eus/biv/?o=chapters&id=8&e=56&h=eu>]. ISBN: 978-84-1319-456-1.

# Gako-hitzak

aditza, ahalera, aspektua, burutugabea, modua, partizipioa

## Deskribapena

Ahalera adierazterakoan, hainbat hizkeratan erabiltzen den aditz egitura (1) adibideari dagokiona da, hau da, aditzoina erabiltzen da aditz nagusirako eta aditz laguntzailea \**edin* edo \**ezan* errokoa da, bere ahalerako forman (hau da, *-ke* morfemaren bidez markatua):

(1)	Leihoa	apur	daiteke
	leiho.ABS	apur	(3ABS).edin.ke

Dena dela, hau ez da euskaraz lekukotu daitekeen egitura bakarra ahalera adierazteko. Badaude, hizkeraren arabera, beste bi egitura balio berarekin erabiltzen direnak. Ekialdeko hainbat hizkeratan *Hizkera eredua 1* deituko diogun egitura erabiltzen da: aditz laguntzailea aspektu burutugabeko morfologiarekin (beraz, *-t(z)en* morfemarekin) markatzen da eta ondoren *ahal* modala gaineratzen da, aditz nagusia eta laguntzailearen artean. Honela (2) bezalako perifrasiak sortzen da:

(2)	Leihoa	apurtzen	ahal	da
	leihoa.	apur.IPFV	ahal	3ABS.izan
	ABS			

Bestalde, badira beste hizkera batzuk non *Hizkera eredua 2* deitu dugun egitura jarraitzen den. Kasu honetan, aurreko ereduaren bezala (2), perifrasi bat osatzen da *ahal* modala aditz nagusia eta laguntzailearen artean tartekatuz, baina oraingoan, aditz nagusia partizipio burutuko forman ageri da, (3) adibidean ikusten denez:

(3)	Leihoa	apurtu	ahal	da
	leihoa.	apur.PTCP	ahal	(3ABS
	ABS			).izan

## Banaketa dialektala

Gure datu-baseak erakusten duen bezala, eta gramatikariek deskribatu bezala, *Hizkera eredia 1* ekialdeari dagokio. Hala, ekialdeko hizkerak deskribatzen dituzten zenbait lanetan, egitura honen erabileraren berri ematen dute. Salaburu eta Lakarrek (2005: 142) hala deskribatzen dute Baztango hizkerarako; haien ustetan, egitura hau usuago erabiltzen da ahalerako adizki trinkoekin osatutakoa baino, eta zalantzarik gabe, *Hizkera eredia 2* baino gehiago, hau arrotza egiten baita Baztanen. Nafarroan oro har *Hizkera eredia 1* erabiltzen den arren, Zuazok (2010: 131) argi azaltzen du ez dela honelakorik Sakanako eta Burundako hizkeretan. Joera hau ere gure datu-basean ageri da.

Mendebalean, ordea, *Hizkera eredia 2* erabiltzen da sarritan. Gaminde eta bestek (2012) aztertutakoaren arabera, Bermeoko belaunaldi gazteenek ahalerazko trinkoak baino askoz gehiago erabiltzen dute egitura hau.

## Datu-basearen emaitzak

*Hizkera eredia 1* deitu diogunari dagokionez, (2) adibideari dagokion egitura, datu-base honetan jasotako datuek erakusten dutena da ekialdeko hizkerari dagokien egitura dela bai Iparraldeko (nafar-lapurtera zein zuberotarra) bai Nafarroako zenbaiti ere. Hala, Ziburu, Oragarre eta Urdiñarbeko lekukotasunez gain, Arizkun (Baztanen), Mezkitzen (Erroibarren), zein Orbaizetan ere jasotzen da aldaera hau. Ez dugu halakorik aurkitzen Urdiainen ez Arbizun, hainbatetan bezala, Nafarroako hizkeren joeratik aldentzen baitira Burundako eta Sakanako hizkerak ezaugarri honi dagokionez ere. Azpimarragarria da, agian, Goizuetan ere ez dela egitura hau jaso. Bestalde, egitura hau ez da lekukotzen mendebaldeko beste ezein hizkeratan ere.

Aldiz, *Hizkera eredia 2* delakoak (3) erakusten duen hedadura guztiz bestelakoa da. Guztiz dagokie mendebaleko hizkerari, eta hala, Getxon, Loiun, Mungian, Artean, Gernikan, Lekeitio, Aramaion, Bergaran eta Elgoibarren lekukotu dugu datu-base honetan. Ez da egitura hau jaso handik ekialdera, ez erdialdeko hizkeretan, ez Nafarroakoetan, ezta nafar-lapurteraz edo zuberotarrez ere.

## Eztabaida teorikoa

EGLU II (Euskaltzaindia 1987 [1997]: 459) ohartarazten da ekialdean *ahal* modalarekin osatutako ahalerazko perifrasiak maizago aurkitzen direla (*Hizkera eredia 1* motako perifrasi ez ari delarik). Hauek ezezkoan ere agertu daitezke, eta kasu honetan, aditz laguntzailea aurreratu egiten da, ezezko partikularen ondoren ager dadin, eta modala aditz nagusiaren ondoan geratzen da:

(4)	Ez	dut	hori	onartzen	ahal
	ez	(3ABS).edun.1ERG	hori	onar.IPFV	ahal

Azpimarragarria da, De Rijkek (2008: 654-658) ohartarazi zuen bezala, *Hizkera eredia 1* deitu dugun egitura arazo gabe ezeztatu daitekeen arren, betiere hitz-hurrenkeraren aldaketa errespetatuz, *Hizkera eredia 2*ko perifrasi ezin dela ezezkoan eman. Hizkera hauetan, ezezkoa emateko, *ahal* modalaren orde, *ezin* erabili behar da.

De Rijken arabera (2008: 653), ekialdean, *ahal* modalaren bitartez ahalerazko moduaren (edo *potentzialaren*) balio semantiko guztiak adieraz daitezke: gaitasuna, aukera, baimena zein ahalmena. Mendebalderagoko hizkeretan, ordea, ohikoagoa da ahalerazko adizki trinkoekin adieraztea ahalmena, beste balio guztietarako *ahal* bidezko perifrasi zilegi delarik.

Azkenik, aipagarria da EGLU II-ren arabera (Euskaltzaindia 1987 [1997]: 459) *Hizkera eredia 1*eko egiturak literatur-tradizio handiagoa badu ere, gaur egun *Hizkera eredia 2*koa jasotzen dela maizago, hau betiere mendebal zabaleko hizkeretan bada ere.

## Aipamenak

de Rijk, Rudolf P.G.. 2008. *Standard Basque: A progressive grammar*. Cambridge (Mass.): MIT Press.

Euskaltzaindia. 1987. *Euskal Gramatika: Lehen Urratsak II*. Iruñea: Institución Príncipe de Viana eta Euskaltzaindia. [Reprinted in Euskaltzaindia. 1997]

Gaminde, Iñaki, Asier Romero and Hiart Legarra. 2012. *Gramatika eta hizkuntz bariazioa Bermeen*. Amorebieta: Erroteta.

Salaburu, Pello and Maite Lakar. 2005. *Batzango mintzoa: gramatika eta hiztegia*. Iruñea: Nafarroako Gobernua & Euskaltzaindia.

Zuazo, Koldo. 2010. *Sakanako euskara. Burundako hizkera*. Iruña: Nafarroako Gobernua; Bilbo: Euskaltzaindia.

---

## viii.4. Baldintza errealeko formak protasian iraganaldiko baldintza irrealak adierazteko: *egin (izan) bazuen (v egin (izan) balu)*

Egilea: Cecilia Fernández

Nola aipatu: Fernández, Cecilia. (2022). Baldintza errealeko formak protasian iraganaldiko baldintza irrealak adierazteko: *egin (izan) bazuen (v egin (izan) balu)*. In Bilbao, Kristina, Ane Odria, Ane Berro, Josu Landa & Beatriz Fernández (eds.), *Euskara Bariazioan / Basque in Variation (BiV)* (3. arg.). UPV/EHUko Argitalpen Zerbitzua. [Interneten eskuragarri: <https://basqueandbeyond.ehu.eus/biv/?o=chapters&id=8&e=67&h=eu>]. ISBN: 978-84-1319-456-1.

# Gako-hitzak

aditza, baldintza, modua

## Deskribapena

Kanonikoki, iraganaldiko baldintza irrealia adierazi nahi denean, protasian (hau da, baldintza bera adierazten duen perpausaren atalean) baldintzako forma irreal burutuak erabiltzen dira. Hau da, (1) adibidean bezala, *ba-* partikularen ondotik aurkitzen dugun aditz laguntzailea forma irrealan (edo *alegiatzkoan*) dago, eta aditz nagusia partizipio burutuaren bidez azaltzen da:

(1)	Eguraldi	ona	egin	(izan)	balu
	eguraldi	ona	egin	(izan)	ba.(3ABS).edun.(3ERG)

Baina badira hainbat hizkera non egitura honetarako bestelako aditz laguntzaile bat erabiltzen den, hain zuzen, iraganaldiko forma erreala, (2) adibidean bezala. Aditz nagusia, bestalde, partizipio burutuaren bidez azaltzen da hemen ere:

(2)	Eguraldi	ona	egin	(izan)	bazuen
	eguraldi	ona	egin	(izan)	ba.(3ABS).edun.(3ERG).PST

Hala, esan daiteke hizkera hauetan iraganaldiko baldintza irrealia adierazteko, baldintza errealeko iraganaldiko forma erabiltzen dela egituraren protasian. Beraz, kasu hauetan, denbora morfologia, moduzko balioa (ere) adierazteko erabiltzen da.

## Banaketa dialektala

Egitura hau hainbat euskalkitan eta, beraz, hainbat euskalkiren deskribapenetan lekukotzen da. Arretzek (1994) Basauriko euskararen lekukotzen du (1994: 236, *Kotixau banendun* bezalako adibideetan) eta *lehenaldiko baldintza* deitzen dio. Hualde, Elordieta eta Elordietak (1994: 118) ere joera honen berri ematen dute Lekeitioko euskararako, eredu orokorreko formarekin batera.

Halaber, Salaburu eta Lakarrek (2005: 177-178), Baztaneko hizkeretan, (2) bezalako egitura erabiltzen dela aipatzen du, nahiz hemen ere (1) bezalakoen ereduarekin tartekatzen den (2005: 178 *konpondu izen bazinuen*).



## Datu-basearen emaitzak

Gure datu-basean jasotako erantzunen arabera, (2) bezalako egitura, euskalki guztietan lekukotzen da. Mendebaleko hizkerari dagokienez, Loiu, Mungia, Lekeitio, Gernika, Artea, Bergara eta Elgoibarren lekukotu da aldaera hau. Erdialdeko hizkeren artean, Itsasondon zein Hernanin aurkitzen dugu. Nafarroako hizkeretan, Arizkunen, Goizuetan zein Orbaizetan jaso da. Nafar-lapurteraz Ziburun eta zuberotarrez Urdiñarben ere, egitura hon berri eman dute.

Aldi berean, badira eremu hauetako bakoitzean beste zenbait hizkera non ez den halako egitura lekukotu. Mendebalean, ezezko erantzuna eman dute Getxon zein Aramaion, erdialdeko hizkeretan, ez da jaso ez Beizaman ez Erreterian, Nafarroako hizkeren artean ez Arbizun ez Mezkitzen ez da lekukotu eta nafar-lapurteraz Oragarren ezta ere.

Mapari begira somatzen den bezala, ez dirudi datu hauen banaketa inongo isoglosari dagokionik. Hala, ematen du haren banaketa geografikoa ez den beste faktoreren baten (edo gehiagoren) menpe egon daitekeela. Adibidez, izan daiteke hiztunen ezaugarrien arabera (adina, generoa etab.) edo erregistroaren arabera.

## Eztabaida teorikoa

Erabilera honen berri ematen du EGLU II-k (Euskaltzaindia 1987 [1997]: 375) baldintzako aditzi buruzko atalean. Bertan adierazten denez, herri hizkeran zabaldua den egitura da hau, iraganeko alegiazko formaren ordez erabiltzen dena. Hala ere, iraganeko alegiazko formaren erabilera hobesten du.

## Aipamenak

Arretxe, Jon. 1994. *Basauriko euskara*. Basauri: Basauriko Udala.

Euskaltzaindia. 1987. *Euskal Gramatika: Lehen Urratsak II*. Iruñea: Institución Príncipe de Viana eta Euskaltzaindia. [Reprinted in Euskaltzaindia. 1997]

Hualde, José Ignacio, Gorka Elordieta and Arantzazu Elordieta. 1994. *The Basque dialect of Lekeitio*. Bilbo and Donostia: PV/EHU and Gipuzkoako Foru Aldundia. Supplements of the *International Journal of Basque Philology ASJU* 34.

Salaburu, Pello and Maite Lakar. 2005. *Baztango mintzoa: gramatika eta hiztegia*. Iruñea: Nafarroako Gobernua & Euskaltzaindia.

eman ta zabal zazu



Universidad  
del País Vasco

Euskal Herriko  
Unibertsitatea

